- **Erantzun motzak:** pertsona-izenordain subjektua + ***to be*** egitura jarraituko dugu, laburbiltzeko baiezkoetan, eta ***not*** partikularekin laburbildua ezezkoetan.

  ***Are** you **going to do** judo next year? Yes, I **am**. / No, I'**m not**.* (Datorren urtean judo egingo al duzu? Bai. / Ez.)

Etorkizuneko *be going to* egituraren erabilerak

Gure egitasmoei eta erabakiei buruz hitz egiteko	*I'**m going to paint** the house.* (Etxea pintatzera noa.)
Zer gertatuko den adierazteko, horretarako zantzuak baditugulako	*She **is going to have** a baby.* (Umea izango du laster.)

- ***Be going to*** egiturarekin honako denbora-esamolde hauek aurkituko ditugu maiz: ***later*** (geroago), ***soon*** (laster), ***in an hour*** (ordubete barru), ***tomorrow*** (bihar), ***next week*** / ***month*** / ***year*** (datorren astean / hilean / urtean), etab. Perpausaren hasieran nahiz bukaeran erabil badaitezke ere, ohikoagoak dira bukaeran.

  *The match **is going to start in an hour**.*
  (Partida ordubete barru hasiko da.)

PRESENT CONTINUOUS ETORKIZUN ESANAHIAREKIN

- *Present Continuous* aldiak orain gertatzen ari dena adierazten du; baina, horrezaz gain, etorkizun hurbilean gertatuko diren egitasmo pertsonalak, aldez aurretik finkatuak, iragartzeko ere erabiltzen da.

  *We'**re playing** a football match on Saturday.*
  (Futbol partida bat jokatzera goaz larunbatean.)
  [erabakita dago]
- ***Be going to*** egiturarekin duen aldea zera da: ez dihardugula intentzioaz soilik, ziurtasun osoz gertatuko den zerbaitez baizik; eta *Present Continuous* arruntarekin duen aldea denbora-esamoldeetan datza, etorkizun esanahia izanik, etorkizunarekin lotutako denbora-esamoldeak izango baititu lagungarri, eta ez orainaldiari lotuak: ***soon*** (laster), ***later*** (gero, geroago), ***tomorrow*** (bihar), ***tonight*** (gaur gauean), ***next week*** / ***month*** / ***year*** (datorren astean / hilean / urtean), etab.

  *He **is leaving this afternoon**.*
  (Gaur arratsaldean alde egingo du.)

  *We **are competing** with them **tomorrow**.*
  (Bihar haiekin lehiatuko gara.)

Unit 6

ADJEKTIBOEN KONPARAZIOA

Bi gauza, animalia edo pertsona konparatzeko, adjektiboak maila konparatiboan erabiliko ditugu.

- Nagusitasun konparaketa (baino …-ago) bi gauza, animalia edo pertsona erkatzeko erabiltzen da, eta ezaugarriren batean batak bestea gainditzen duela adierazten du. Egoki osatzeko, kontuan izan behar dugu darabilgun adjektiboaren luzera:

  1. Silaba bakarrekoa edo ***y*** bukaera duen bikoa bada, laburtzat jotzen da eta ***-er*** bukaera gehituko diogu. Ondoren ***than*** partikula eramango du.

  *The silver ring is **cheaper than** the gold one.*
  (Zilarrezko eraztuna urrezkoa baino merkeagoa da.)

  Honako kasu hauetan, adjektiboak aldaketak jasaten ditu ***-er*** gehitzean:

  - Silaba bakarrekoa izanda, **bokala** + **kontsonantea** baditu amaieran, kontsonante hori bikoiztu egiten da:
    *th**in** - thin**ner** b**ig** - big**ger***
  - **Kontsonantea** + ***y*** amaieradun 2 silabakoa bada, ***y*** hori ***i*** ***y*** batez ordezten da:
    *cra**zy** - cra**zier*** *luc**ky** - luck**ier***
  - ***L*** bukaeraduna bada, hizki hori bikoizten zaio:
    *cru**el** - cru**eller***
  - ***E*** mutuaz amaitzen bada, ***-r*** bakarrik gehitzen zaio:
    *nic**e** - nic**er***

  2. Bi silaba edo gehiago baditu adjektiboak, luzea da, eta orduan konparaketa honela eratuko da: ***more*** + adjektiboa + ***than***.

  *Villages are **more peaceful than** cities.*
  (Herriak hiriak baino lasaiagoak dira.)

ADJEKTIBOEN SUPERLATIBOA

- Bi pertsona, gauza edo animalia baino gehiago erkatzeko eta bat besteetatik nabarmentzen dela adierazteko erabiltzen da. Adjektiboaren aurretik ***the*** artikulua kokatuko dugu, eta hemen ere kontuan izan behar dugu adjektiboaren luzera:
  - Motza bada, ***-est*** amaiera gehituko diogu, adjektibo konparatiboa osatzeko ikusi ditugun ortografia-arau berberak jarraituz.
    *This is **the cheapest** necklace in the shop.*
    (Hau da dendako lepokorik merkeena.)
  - Luzea bada, aurrean ***the most*** kokatuko dugu.
    *This forest is **the most pleasant** place I know.*
    (Oihan hau da ezagutzen dudan lekurik atseginena.)
- Superlatiboak ***in***, ***of*** eta ***on*** preposizioak eraman ditzake ondoren.
  *Spring is **the most colourful** season **of** the year.*
  (Udaberria da urteko sasoirik koloretsuena.)

ADJEKTIBO IRREGULARRAK

Inolako araurik jarraitzen ez dutenez, buruz ikasi behar dira adjektibo hauen konparatibozko eta superlatibozko formak.

Adjektiboa	Konparatiboa	Superlatiboa
good (on)	**better**	**best**
bad (txar)	**worse**	**worst**
far (urruneko)	**farther / further**	**farthest / furthest**

Unit 7

PRESENT PERFECT SIMPLE

Baiezkoa	Forma laburtua
I **have crashed**	I**'ve crashed**
You **have crashed**	You**'ve crashed**
He **has crashed**	He**'s crashed**
She **has crashed**	She**'s crashed**
It **has crashed**	It**'s crashed**
We **have crashed**	We**'ve crashed**
You **have crashed**	You**'ve crashed**
They **have crashed**	They**'ve crashed**
Ezezkoa	**Forma laburtua**
I **have not crashed**	I **haven't crashed**
You **have not crashed**	You **haven't crashed**
He **has not crashed**	He **hasn't crashed**
She **has not crashed**	She **hasn't crashed**
It **has not crashed**	It **hasn't crashed**
We **have not crashed**	We **haven't crashed**
You **have not crashed**	You **haven't crashed**
They **have not crashed**	They **haven't crashed**

Galderazkoa	Erantzun motzak	
	Baiezkoa	Ezezkoa
Have I **crashed** ...?	Yes, I **have**.	No, I **haven't**.
Have you **crashed** ...?	Yes, you **have**.	No, you **haven't**.
Has he **crashed** ...?	Yes, he **has**.	No, he **hasn't**.
Has she **crashed** ...?	Yes, she **has**.	No, she **hasn't**.
Has it **crashed** ...?	Yes, it **has**.	No, it **hasn't**.
Have we **crashed** ...?	Yes, we **have**.	No, we **haven't**.
Have you **crashed** ...?	Yes, you **have**.	No, you **haven't**.
Have they **crashed** ...?	Yes, they **have**.	No, they **haven't**.

- **Baiezkoa:** subjektua + ***has*** / ***have*** + aditz nagusiaren partizipioa.
  *We **have milked** the cows.* (Jetzi ditugu behiak.)
- **Ezezkoa:** subjektua + ***has*** / ***have*** + ***not*** partikula edo ***n't*** laburtua + aditz nagusiaren partizipioa.
  *Megan **hasn't swum** with sharks.*
  (Meganek ez du marrazoekin igeri egin.)
- **Galderak:** ***Has*** / ***Have*** + subjektua + aditz baten partizipioa.
  ***Have**you **seen** any unusual animals?*
  (Ikusi al duzu animalia ezohikorik?)
- **Erantzun motzak:** pertsona-izenordain subjektua + ***has*** / ***have*** laburbiltzeke baiezkoa bada, eta ***not*** partikularekin laburtua ezezkoa bada.
  ***Have**they **discovered** anything? Yes, they **have**. / No, they **haven't**.* (Aurkikuntzarik egin al dute? Bai. / Ez.)
- *Present Perfect Simple* aditz-denborarekin honako adberbio hauek ikusiko ditugu:

ever	galderak: "inoiz", "egundaino"	*Have you **ever** held a snake?*
	ezezkoak: "inoiz ez"	*I haven't **ever** fed lions.*
never	baiezkoak: "inoiz"	*She has **never** trained dogs.*
always	"beti"	*They've **always** had that car.*
already	baiezkoa: "jada"	*We've **already** been to Berlin.*
just	baiezkoa: "oraintxe"	*We have **just** met them.*
yet	ezezkoa: "oraindik"	*She hasn't tried your cake **yet**.*
	galderazkoa: "jada"	*Have you watched that film **yet**?*
recently	"orain dela gutxi"	*Have they been here **recently**?*
lately	"azken boladan"	*He hasn't been to the gym **lately**.*
several times	"hainbat aldiz"	*They have volunteered **several times** at the Cruz Roja.*
so far	"orain arte"	*How much of the country have you explored **so far**?*

Gogoan izan, ***just***, ***already***, ***always***, ***ever*** eta ***never have*** laguntzailearen eta aditz nagusiaren partizipioaren artean jartzen direla; ***yet*** esaldiaren bukaeran. Beste guztiak esaldiaren hasieran edo bukaeran jar daitezke, bukaeran, ordea, gehiagotan.

FOR / SINCE

Present Perfect Simple aditz-aldiarekin honako hauen antzeko denbora-esamoldeak ere ikusiko ditugu:

- ***For*** preposizioa eta jarraian denbora-iraupena daramatenak; ekintzaren iraupena adierazten dute. Itzultzeko, denboraren iraupena + -z / -n erabil daiteke, edo "eraman" aditza erabili lagungarri gisa.
  *Your sister has lived in the USA **for** ten years.*
  (Zure ahizpak hamar urte daramatza Estatu Batuetan bizitzen.)
- ***Since*** preposiziodunek ekintza hasi zen une zehatza adierazten dute. Itzultzeko, une zehatza + -tik / -z geroztik erabiltzen da.
  *I haven't seen him **since** Tuesday.*
  (Ez dut ikusi ostegunaz geroztik.)

Present Perfect Simple aditz-denboraren erabilera

Lehenaldian hasi eta oraindik dirauten ekintzak adierazteko (***for*** eta ***since*** partikulekin lagunduta, orainaldian itzultzen dira)	*Sam **has volunteered** at the Cruz Roja **since** 1998.* (Sam Gurutze Gorriko boluntarioa da 1998tik.)
Oraindik garrantzia duten lehenaldiko ekintzak adierazteko edo oraindik ondorioak dituzten lehenaldiko ekintzak adierazteko	*I **have rowed** for hours. I'm very tired now.* (Orduak egin ditut arraunean. Orain oso nekaturik nago.)
Denbora zehaztu gabe duten lehenaldiko ekintzak adierazteko	*I **have parachuted** once.* (Behin egin dut paraxutarekin jauzi.)
Ekintza burutu berriak (***just*** partikularekin lagunduta, "oraintxe" + aditz-partizipioarekin itzultzen da)	*The aeroplane **has just landed**.* (Hegazkinak oraintxe hartu du lur.)

Unit 8

ZENBATZAILEAK

a lot of	Izen zenbakarri pluralekin eta zenbakaitzekin.	
	pila, asko	***A lot of** musicians play here.* *There is **a lot of** noise.*
many	Izen zenbakarri pluralekin.	
	asko	***Many** people like rock music.*
much	Ezezko esaldietan eta galderetan: Izen zenbakaitzekin.	
	asko	*I haven't got **much** time.*
		*Was there **much** money?*
How many ...? Zenbat?	Izen zenbakarri pluralekin.	
	***How many** guitars are there?*	
How much ...? Zenbat?	Izen zenbakaitzekin. ***To be*** aditzarekin gauza baten prezioa galdetzeko erabiltzen da.	
	***How much** coordination have you got?* ***How much is** it?*	

DETERMINATZAILEAK

a / an	Izen zenbakarri singularrekin. Hiztunari ezezagun zaizkion izenen aurrean erabiltzen dira.	
	bat	***a** drum, **an** ambulance*
some	Baiezko esaldietan: Izen zenbakarri pluralekin eta zenbakaitzekin. Galderetan: Galderan adierazitako eskaintzaren edo eskaeraren erantzuna baiezkoa izatea espero denean.	
	batzu(e)k	*There are **some** CDs.* *We've got **some** jazz music.*
	pixka bat (edo itzultzeke)	*Would you like **some** water?*
any	Ezezko esaldietan eta galderetan: Izen zenbakarri pluralekin eta zenbakaitzekin.	
	(batere) ... -(r)ik	*I haven't got **any** books.* *She hasn't got **any** rhythm.*
	-(r)ik	*Are there **any** bananas?* *Have you got **any** money?*

THERE IS / THERE ARE

	Zenbakarriak	Zenbakaitzak
Baiezkoa	***There is** a concert.* ***There are** some mosquitoes.*	***There is** some music.*
Ezezkoa	***There isn't** a signal.* ***There aren't** any builders.*	***There isn't** any noise.*
Galderazkoa	***Is there** a computer?* ***Are there** any birds?*	***Is there** any bread?*
Erantzun motzak	*Yes, **there is**. / No, **there isn't**.* *Yes, **there are** / No, **there aren't**.*	

- **Baiezkoa:** ***There is*** formak izen zenbakarri singularra edo izen zenbakaitza izaten du ondotik. ***There are*** forma izen zenbakarri pluralekin bakarrik erabil daiteke. "Dago" eta "daude" esangura du.
- **Ezezkoa:** ***There is*** / ***There are*** + ***not*** partikula (***There is not*** / ***There are not***) edo ***n't*** laburtua (***There isn't*** / ***There aren't***).
- **Galderazkoa:** galderek ***Is*** / ***Are*** aditza + ***there*** izaten dute hasieran.
- **Erantzun motzak:** ohiko hurrenkerara itzuliko gara, eta, ezezkoak badira, forma laburtuak erabiliko ditugu.

EDUTEZKO IZENORDAINAK

mine	nirea, nireak
yours	zurea, zureak
his	berea, bereak (gizonezkoarenak)
hers	berea, bereak (emakumezkoarenak)
ours	gurea, gureak
yours	zuena, zuenak
theirs	haiena, haienak

- Zerbait edo norbait norena den adierazten dute. Jabetzan dugun elementua (izen baten bitartez adierazia) ordezkatzen dute, eta jokatzerakoan jabearekin soilik datoz bat.

  *Those trousers are **hers**.*
  (Galtza horiek harenak (neskarenak) dira.)
- Batzuetan, itzultzerakoan izenordain indargarriak ere erabil ditzakegu euskaraz.

  *This guitar isn't **yours**. It's **mine**.*
  (Gitarra hau ez da zurea, neurea baizik.)

Unit 9

CAN / CAN'T

Baiezkoa	Ezezkoa	Forma laburtua
I **can swim**	I **cannot swim**	I **can't swim**
You **can swim**	You **cannot swim**	You **can't swim**
He **can swim**	He **cannot swim**	He **can't swim**
She **can swim**	She **cannot swim**	She **can't swim**
It **can swim**	It **cannot swim**	It **can't swim**
We **can swim**	We **cannot swim**	We **can't swim**
You **can swim**	You **cannot swim**	You **can't swim**
They **can swim**	They **cannot swim**	They **can't swim**

Galderazkoa	Erantzun motzak	
	Baiezkoa	Ezezkoa
Can I **swim**?	Yes, I **can**.	No, I **can't**.
Can you **swim**?	Yes, you **can**.	No, you **can't**.
Can he **swim**?	Yes, he **can**.	No, he **can't**.
Can she **swim**?	Yes, she **can**.	No, she **can't**.
Can it **swim**?	Yes, it **can**.	No, it **can't**.
Can we **swim**?	Yes, we **can**.	No, we **can't**.
Can you **swim**?	Yes, you **can**.	No, you **can't**.
Can they **swim**?	Yes, they **can**.	No, they **can't**.

- **Baiezkoa:** subjektua + ***can*** + aditza oinarrizko forman.

  *They **can speak** English very well.*
  (Oso ongi dakite ingelesez hitz egiten.)

  *I **can carry** it in my car.* (Nire autoan eraman dezaket.)

  *You **can cross** at a green light.*
  (Argi berdearekin gurutza dezakezu.)
- **Ezezkoa:** subjektua + ***cannot*** edo ***can't*** + aditzoina.

  *We **cannot change** her.* (Ezin dugu neska aldatu.)
- **Galderazkoa:** ***Can*** + subjektua + aditzoina.

  ***Can** we **go** to the caves?* (Haitzuloetara joan gaitezke?)
- **Erantzun motzak:** pertsona-izenordain subjektua + ***can*** ala ***can't***.

  Can** you **cook**? Yes, I **can**. / No, I **can't.
  (Badakizu janaria prestatzen? Bai. / Ez.)

Can aditzaren erabilerak

Zerbait egiteko trebezia edo gaitasuna: "jakin"	*She **can read** very well.* (Oso ongi irakur dezake.)
Zerbait egiteko posibilitatea: "ahal izan"	*You **can break** it. Be careful.* (Hautsi egin dezakezu. Kontuz ibili.)
Konfiantzazko norbaiti baimena edo mesedea eskatzeko: "ahal izan"	***Can** I **pick** this apple? Yes, you **can**.* (Sagar hau har dezaket? Bai.)

COULD / COULDN'T

Baiezkoa	Ezezkoa	Forma laburtua
I **could go**	I **could not go**	I **couldn't go**
You **could go**	You **could not go**	You **couldn't go**
He **could go**	He **could not go**	He **couldn't go**
She **could go**	She **could not go**	She **couldn't go**
It **could go**	It **could not go**	It **couldn't go**
We **could go**	We **could not go**	We **couldn't go**
You **could go**	You **could not go**	You **couldn't go**
They **could go**	They **could not go**	They **couldn't go**

Galderazkoa	Erantzun motzak	
	Baiezkoa	Ezezkoa
Could I **go**?	Yes, I **could**.	No, I **couldn't**.
Could you **go**?	Yes, you **could**.	No, you **couldn't**.
Could he **go**?	Yes, he **could**.	No, he **couldn't**.
Could she **go**?	Yes, she **could**.	No, she **couldn't**.
Could it **go**?	Yes, it **could**.	No, it **couldn't**.
Could we **go**?	Yes, we **could**.	No, we **couldn't**.
Could you **go**?	Yes, you **could**.	No, you **couldn't**.
Could they **go**?	Yes, they **could**.	No, they **couldn't**

- **Baiezkoa:** subjektua + ***could*** + aditza oinarrizko forman.

  *In the past, you **could buy** many things with a pound.*
  (Garai batean, gauza asko eros zitezkeen libera batekin.)

  *The prisoners **could run away** through a hole.*
  (Presoek zulo batetik ihes egin ahal izan zuten.)
- **Ezezkoa:** subjektua + ***could not*** edo ***couldn't*** forma laburtua + aditzoina.

  *Ben **couldn't read** five years ago.*
  (Orain dela bost urte, Benek ez zekien irakurtzen.)
- **Galderak**: ***Could*** + subjektua + aditzoina.

  ***Could** they **give** you any explanation?*
  (Zuri azalpenik ematerik izan al zuten? Bai. / Ez.)

- **Erantzun motzak:** pertsona-izenordain subjektua + ***could*** ala ***couldn't*** erabiliz osatzen dira.
  Could *you* ***arrive*** *on time? Yes, I* ***could.*** */ No, I* ***couldn't****.*
  (Garaiz iristerik izan al zenuen? Bai. / Ez.)

Could aditzaren erabilerak

Zerbait egiteko trebezia eta gaitasuna lehenaldian	*Sam* ***could read*** *at the age of six.* (Samek bazekien irakurtzen sei urterekin.)
Zerbait egiteko posibilitatea iraganean	*I* ***couldn't refuse*** *to do it.* (Ezin nuen esan ez nuela egingo.)

SHOULD / SHOULDN'T

Baiezkoa	Ezezkoa
I **should try**	I **shouldn't try**
You **should try**	You **shouldn't try**
He **should try**	He **shouldn't try**
She **should try**	She **shouldn't try**
It **should try**	It **shouldn't try**
We **should try**	We **shouldn't try**
You **should try**	You **shouldn't try**
They **should try**	They **shouldn't try**

Galderazkoa	Erantzun motzak	
	Baiezkoa	Ezezkoa
Should I **try**?	Yes, I **should**.	No, I **shouldn't**.
Should you **try**?	Yes, you **should**.	No, you **shouldn't**.
Should he **try**?	Yes, he **should**.	No, he **shouldn't**.
Should she **try**?	Yes, she **should**.	No, she **shouldn't**.
Should it **try**?	Yes, it **should**.	No, it **shouldn't**.
Should we **try**?	Yes, we **should**.	No, we **shouldn't**.
Should you **try**?	Yes, you **should**.	No, you **shouldn't**.
Should they **try**?	Yes, they **should**.	No, they **shouldn't**.

- **Baiezkoa:** subjektua + ***should*** + aditza oinarrizko forman.
  You ***should act*** *in that film.*
  (Film horretan antzeztu beharko zenuke.)
- **Ezezkoa:** subjektua + ***should not*** edo ***shouldn't*** (ohikoena bigarrena izanik) + aditzoina.
  Ships ***shouldn't sail*** *on Friday.*
  (Itsasontziek ez lukete nabigatu behar ostiraletan.)
- **Galderak:** ***Should*** + subjektua + aditzoina.
  Should *I* ***be*** *worried?* (Kezkatuta egon behar al nuke?)
- **Erantzun motzak:** pertsona-izenordain subjektua + ***should*** ala ***shouldn't*** egitura erabiliko dugu.
  Should *we* ***believe*** *in bad luck? Yes, we* ***should****. /*
  No, we ***shouldn't****.*
  (Zorte txarrean sinetsi behar al genuke? Bai. / Ez.)

Should / shouldn't aditzaren erabilerak

Aholkuak emateko	*You* ***should go*** *now. It's late.* (Joan egin behar zenuke orain. Berandu da.)
Gure ustez egin behar (ez) litzatekeena adierazteko	*They* ***shouldn't shout*** *here.* (Hemen ez lukete oihurik egin behar.)

MUST / MUSTN'T

Baiezkoa	Ezezkoa
I **must sweep**	I **mustn't sweep**
You **must sweep**	You **mustn't sweep**
He **must sweep**	He **mustn't sweep**
She **must sweep**	She **mustn't sweep**
It **must sweep**	It **mustn't sweep**
We **must sweep**	We **mustn't sweep**
You **must sweep**	You **mustn't sweep**
They **must sweep**	They **mustn't sweep**

- **Baiezkoa:** subjektua + ***must*** + aditza oinarrizko forman.
  She ***must tell*** *them the truth.*
  (Egia esan beharra dauka haiei.)
- **Ezezkoa:** subjektua + ***must not*** edo ***mustn't*** (bigarrena izanik ohikoena) + aditzoina.
  They ***mustn't take*** *photos here.*
  (Hemen ezin dute argazkirik atera.)
  You ***mustn't break*** *a mirror.*
  (Ezin duzu ispilu bat hautsi.) [ez da komenigarria]
- **Galderak:** ***Must*** + subjektua +aditzoina. Kasu honetan, ***must*** moduzkoak obligazioa edo beharra adierazten du. Hala ere, aditz hau ez da larregi erabiltzen galderetan.
  Must *we* ***speak*** *to the manager?*
  (Enkargatuarekin hitz egin behar al dugu?)
- **Erantzun motzak:** pertsona-izenordain subjektua + ***must*** ala ***mustn't*** erabiliko dugu.
  Must *I* ***take*** *you home? Yes, you* ***must****. / No, you* ***mustn't****.*
  (Etxera eraman behar al zaitut? Bai. / Ez.)

Must / mustn't aditzaren erabilerak

Obligazioa, beharra, zerbait egitea komenigarria dela adierazten du:"behar izan"	*I* ***must give*** *them an explanation.* (Azalpen bat eman behar diet.)
Zerbait egitea debekatuta dagoela, baimendua ez dagoelako edo komeni edo zuzena ez delako	*You* ***mustn't scratch*** *your nose.* (Ez duzu sudurra zirikatu behar.)

ADITZ-DENBOREN ERREPASOA

Present Simple **(ikus 9. orrialdea)**	
Erabilerak	Deskribapenak eta egia orokorrak.
	Ohiko edo eguneroko ekintzak.
	Gustuak eta iritziak.
	Egitarauak eta ordutegiak.
Denbora-esamoldeak: ***every day***, ***on Mondays***, etab. Maiztasun-adberbioak: ***always***, ***usually***, ***often***, ***never***, etab.	

Present Continuous **(ikus 10. orrialdea)**	
Erabilerak	Hitz egiten ari garen unean nahiz une horren inguruan gertatzen ari diren ekintzak adierazteko.
Denbora-esamoldeak: ***now***, ***at the moment***, ***this week***, etab.	

Past Simple **(ikus 11. orrialdea)**	
Erabilerak	Iraganeko ekintzak adierazteko.
	Iraganeko une zehatz batean egin genuena adierazteko.
	Gertatutako ondoz ondoko ekintzak kontatzeko.
	Iraganean gauzak nola ziren kontatzeko.
Denbora-esamoldeak: ***a week ago***, ***last night***, ***yesterday***, etab.	

Past Continuous **(ikus 12. orrialdea)**	
Erabilerak	Lehenaldian gertatzen ari ziren ekintzak adierazteko.
	Lehenaldiko bi ekintza aldibereko edo gehiago deskribatzeko.
Denbora-esamoldeak: ***at*** + ordua, ***last night***, etab.	

will **(ikus 12. orrialdea)**	
Erabilerak	Etorkizuneko ekintzak eta gertaerak iragartzeko.
	Gure ustez gertatuko dena iragartzeko.
	Bat-bateko erabakiak adierazteko.
Denbora-esamoldeak: ***later***, ***one day***, ***in the future***, etab.	

Lehenengo baldintza (ikus 13. orrialdea)	
Erabilerak	Adierazitako baldintza betez gero, zer ondorio izango diren adierazteko.
Baldintza: ***If*** + *Present Simple*	
Emaitza: etorkizuna ***will*** egiturarekin	

be going to **(ikus 13. orrialdea)**	
Erabilerak	Gure egitasmoei eta erabakiei buruz hitz egiteko.
	Zer gertatuko den adierazteko, horretarako zantzuak baditugulako.
Denbora-esamoldeak: ***later***, ***soon***, ***in*** + urtea, etab.	

Present Continuous **etorkizun esanahiarekin (ikus 14. orrialdea)**	
Erabilerak	Etorkizun hurbilean gertatuko diren ekintzak, aldez aurretik finkatuak.
Denbora-esamoldeak: ***soon***, ***later***, ***tonight***, ***next year***, etab.	

Present Perfect Simple **(ikus 15. orrialdea)**	
Erabilerak	Lehenaldian hasi eta oraindik dirauten ekintzak.
	Oraindik ondorioak dituzten lehenaldiko ekintzak.
	Denbora zehaztu gabe duten lehenaldiko ekintzak.
	Ekintza burutu berriak.
Denbora-esamoldeak: ***for, since***, ***ever***, ***never***, ***just***, etab.	

Irregular Verbs

BASE FORM (V1)	PAST SIMPLE (V2)	PAST PARTICIPLE (V3)	EUSKARA
be /biː/	was/were /wɒz/wɜː/	been /biːn/	izan
beat /biːt/	beat /biːt/	beaten /'biːtn/	jo
become /bɪ'kʌm/	became /bɪ'keɪm/	become /bɪ'kʌm/	bihurtu, bilakatu
begin /bɪ'gɪn/	began /bɪ'gæn/	begun /bɪ'gʌn/	hasi
bend /bend/	bent /bent/	bent /bent/	tolestu, okertu
bet /bet/	bet /bet/	bet /bet/	apustu egin
bite /baɪt/	bit /bɪt/	bitten /'bɪtn/	hozka egin
bleed /bliːd/	bled /bled/	bled /bled/	odola jario
blow /bləʊ/	blew /bluː/	blown /bləʊn/	putz egin
break /breɪk/	broke /brəʊk/	broken /'brəʊkən/	apurtu
bring /brɪŋ/	brought /brɔːt/	brought /brɔːt/	ekarri
build /bɪld/	built /bɪlt/	built /bɪlt/	eraiki
burn /bɜːn/	burnt/burned /bɜːnt/bɜːnd/	burnt/burned /bɜːnt/bɜːnd/	erre
buy /baɪ/	bought /bɔːt/	bought /bɔːt/	erosi
catch /kætʃ/	caught /kɔːt/	caught /kɔːt/	hartu, harrapatu
choose /tʃuːz/	chose /tʃəʊz/	chosen /'tʃəʊzn/	aukeratu
come /kʌm/	came /keɪm/	come /kʌm/	etorri
cost /kɒst/	cost /kɒst/	cost /kɒst/	kostatu
cut /kʌt/	cut /kʌt/	cut /kʌt/	moztu
dig /dɪg/	dug /dʌg/	dug /dʌg/	aitzurtu, zuloa egin
do /duː/	did /dɪd/	done /dʌn/	egin
draw /drɔː/	drew /druː/	drawn /drɔːn/	marraztu
dream /driːm/	dreamt/dreamed /dremt/driːmd/	dreamt/dreamed /dremt/driːmd/	amets egin
drink /drɪŋk/	drank /dræŋk/	drunk /drʌŋk/	edan
drive /draɪv/	drove /drəʊv/	driven /'drɪvn/	gidatu
eat /iːt/	ate /eɪt/	eaten /iːtn/	jan
fall /fɔːl/	fell /fel/	fallen /'fɔːlən/	erori
feed /fiːd/	fed /fed/	fed /fed/	elikatu
feel /fiːl/	felt /felt/	felt /felt/	sentitu
fight /faɪt/	fought /fɔːt/	fought /fɔːt/	borrokatu, borroka egin
find /faɪnd/	found /faʊnd/	found /faʊnd/	aurkitu
fly /flaɪ/	flew /fluː/	flown /fləʊn/	hegan egin
forget /fə'get/	forgot /fə'gɒt/	forgotten /fə'gɒtn/	ahaztu
forgive /fə'gɪv/	forgave /fə'geɪv/	forgiven /fə'gɪvn/	barkatu
freeze /friːz/	froze /frəʊz/	frozen /'frəʊzn/	izoztu
get /get/	got /gɒt/	got /gɒt/	lortu; iritsi
give /gɪv/	gave /geɪv/	given /gɪvn/	eman
go /gəʊ/	went /went/	gone /gɒn/	joan
grow /grəʊ/	grew /gruː/	grown /grəʊn/	hazi; landatu
hang /hæŋ/	hanged/hung /hæŋd/hʌŋ/	hanged/hung /hæŋd/hʌŋ/	eseki
have /hæv/	had /hæd/	had /hæd/	izan, eduki
hear /hɪə/	heard /hɜːd/	heard /hɜːd/	entzun
hide /haɪd/	hid /hɪd/	hidden /'hɪdn/	ezkutatu
hit /hɪt/	hit /hɪt/	hit /hɪt/	jo
hold /həʊld/	held /held/	held /held/	eutsi
hurt /hɜːt/	hurt /hɜːt/	hurt /hɜːt/	zauritu, mindu; min eman
keep /kiːp/	kept /kept/	kept /kept/	gorde, mantendu
know /nəʊ/	knew /n juː/	known /nəʊn/	jakin, ezagutu
lay /leɪ/	laid /leɪd/	laid /leɪd/	jarri; hedatu, zabaldu
lead /liːd/	led /led/	led /led/	zuzendu, gidatu

BASE FORM (V1)	PAST SIMPLE (V2)	PAST PARTICIPLE (V3)	EUSKARA
learn /lɜːn/	learnt/learned /lɜːnt/lɜːnd/	learnt/learned /lɜːnt/lɜːnd/	ikasi
leave /liːv/	left /left/	left /left/	utzi; joan, irten
lend /lend/	lent /lent/	lent /lent/	prestatu
let /let/	let /let/	let /let/	baimena eman, utzi
lie /laɪ/	lay /leɪ/	lain /leɪn/	etzan
lie /laɪ/ (regular verb)	lied /laɪd/	lied /laɪd/	gezurra esan
light /laɪt/	lit /lɪt/	lit /lɪt/	piztu
lose /luːz/	lost /lɒst/	lost /lɒst/	galdu
make /meɪk/	made /meɪd/	made /meɪd/	egin
mean /miːn/	meant /ment/	meant /ment/	esan nahi izan
meet /miːt/	met /met/	met /met/	ezagutu; -ekin geratu
pay /peɪ/	paid /peɪd/	paid /peɪd/	ordaindu
put /pʊt/	put /pʊt/	put /pʊt/	jarri, ipini
read /riːd/	read /red/	read /red/	irakurri
ride /raɪd/	rode /rəʊd/	ridden /'rɪdn/	gainean ibili
ring /rɪŋ/	rang /ræŋ/	rung /rʌŋ/	deitu
rise /raɪz/	rose /rəʊz/	risen /'rɪzn/	jaso, altxatu
run /rʌn/	ran /ræn/	run /rʌn/	korrika egin
say /seɪ/	said /sed/	said /sed/	esan
see /siː/	saw /sɔː/	seen /siːn/	ikusi
sell /sel/	sold /səʊld/	sold /səʊld/	saldu
send /send/	sent /sent/	sent /sent/	bidali
set /set/	set /set/	set /set/	ezarri, ipini
shake /ʃeɪk/	shook /ʃʊk/	shaken /'ʃeɪkən/	eragin, astindu
shine /ʃaɪn/	shone /ʃɒn/	shone /ʃɒn/	distiratu
shoot /ʃuːt/	shot /ʃɒt/	shot /ʃɒt/	tiro egin
show /ʃəʊ/	showed /ʃəʊd/	show/	erakutsi
shut /ʃʌt/	shut /ʃʌt/	shut /ʃʌt/	itxi
sing /sɪŋ/	sang /sæŋ/	sung /sʌŋ/	abestu
sink /sɪŋk/	sank /sæŋk/	sunk /sʌŋk/	hondoratu
sit /sɪt/	sat /sæt/	sat /sæt/	eseri
sleep /sliːp/	slept /slept/	slept /slept/	lo egin
smell /smel/	smelt/smelled /smelt/smeld/	smelt/smelled /smelt/smeld/	usaindu
speak /spiːk/	spoke /spəʊk/	spoken /spəʊkən/	hitz egin
spell /spel/	spelt/spelled /spelt/speld/	spelt/spelled /spelt/speld/	letreiatu
spend /spend/	spent /spent/	spent /spent/	gastatu; eman (denbora)
stand /stænd/	stood /stʊd/	stood /stʊd/	zutik egon
steal /stiːl/	stole /stəʊl/	stolen /'stəʊlən/	lapurtu
stick /stɪk/	stuck /stʌk/	stuck /stʌk/	itsatsi
sweep /swiːp/	swept /swept/	swept /swept/	erratzatu, eskobatu
swim /swɪm/	swam /swæm/	swum /swʌm/	igeri egin
take /teɪk/	took /tʊk/	taken /'teɪkən/	hartu; eraman
teach /tiːtʃ/	taught /tɔːt/	taught /tɔːt/	irakatsi
tear /teə/	tore /tɔː/	torn /tɔːn/	urratu, zartatu
tell /tel/	told /təʊld/	told /təʊld/	esan, kontatu
think /θɪŋk/	thought /θɔːt/	thought /θɔːt/	pentsatu
throw /θrəʊ/	threw /θruː/	thrown /θrəʊn/	bota; jaurti
understand /ʌnde'stænd/	understood /ʌnde'stʊd/	understood /ʌnde'stʊd/	ulertu
wake up /weɪk 'ʌp/	woke up /wəʊk 'ʌp/	woken up /wəʊkən 'ʌp/	esnatu
wear /weə/	wore /wɔː/	worn /wɔːn/	soinean eraman; jantzi
win /wɪn/	won /wʌn/	won /wʌn/	irabazi
write /raɪt/	wrote /rəʊt/	written /'rɪtn/	idatzi

Writing Guide

IDATZI AURRETIK > Brainstorming

- Idatzi behar duzun gaia ulertzen duzula ziurtatu.
- Gaiarekin loturiko ideien zerrenda egin eta burura etortzen zaizkizun ideia guztiak idatzi, gramatikaz eta ortografiaz arduratu gabe.
- Ondoren, ideien zerrenda hau irakurri eta garrantzitsuenak aukeratu.

History of Tennis

Major Walter Wingfield invented the game in 1873.
He gave it the name *Spharistike*.
~~People play tennis on tennis courts.~~
The first world tennis competition at Wimbledon was in 1877.
In 1877 there were 22 players and 200 spectators.
~~People wear tennis shoes when they play tennis.~~
Spencer Gore won the first competition.
In 1884, women started competing in Wimbledon.

TESTUA IDATZI > Writing a paragraph

Paragrafo batek hiru zati ditu:

- **Sarrera** edo lehen esaldia (***opening sentence***), hau da, gaia aurkezten duena.
- **Garapena** edo paragrafoaren gorputza (***body of paragraph***), ideia nagusia informazio garrantzitsuarekin zabaltzen duena.
- **Amaiera** edo azken esaldia (***closing sentence***), gaia laburbiltzen duena eta ideia nagusia beste hitz batzuekin errepikatzen duena.

I love music. — **opening sentence**

I use my MP4 on the way to school. I download songs from the Internet onto my MP4 and I listen to it all the time. I like many types of music: hip-hop, Latin, jazz and pop, too. — **body of paragraph**

When there is good music, I'm happy. — **closing sentence**

IDATZITAKOA ERREPASATU > Checking your work

LETRA LARRIA

(Capital letters)

Letra larriz idazten dira:

- pertsona-izenak eta tituluak:
  Mrs Sandra Bennett, Dr Perry, Ray Mears
- zenbait leku-izen, esate baterako hiri, herri, kontinente, eraikin ospetsu, museo, etab.: *London*, *Italy*, *Asia*, *the Eiffel Tower*, *the Guggenheim Museum*
- herritartasunak: *English*, *Chinese*, *American*
- egunak: *Saturday*, *Tuesday*, *Friday*
- hilabeteak: *January*, *July*, *October*
- esaldi baten lehen hitza: *My sister is thirteen years old*.
- ***I*** pertsona-izenordaina: *I go ice skating and I play the guitar.*
- hizkuntzak: *French*, *Thai*, *Arabic*
- liburu, pelikula, abesti, festa-aldi eta ordenagailuko joko izenen hitz garrantzitsuak:
  Harry Potter and the Half-Blood Prince
  Avatar
  California Dreamin'
  Christmas
  Tomb Raider II

DENBORA-PREPOSIZIOAK

(Prepositions of time)

Preposizio desberdinak erabiltzen dira orduen eta festa-aldien aurrean, egunen eta daten aurrean, hilabeteen, urteen eta egun-zatien aurrean. Garrantzitsua da kasuan kasuko preposizio egokia erabiltzen jakitea. Begira arretaz honako adibide hauei:

• **at**	orduak:	*at two o'clock*
	festa-aldiak:	*at Christmas*
• **on**	asteko egunak:	*on Sunday*
	datak:	*on 10th May*
		on Christmas Day
• **in**	hilabeteak:	*in June*
	urtaroak:	*in winter*
	urteak:	*in 2010*
	egun-zatiak:	*in the evening*
Salbuespenak:		*at the weekend*
		at night

PUNTUAZIOA
(Punctuation)

- Puntua (.) baiezko eta ezezko esaldien bukaeran jartzen da.
  Mary is fourteen years old.
- Koma (,) hitzak edo ideiak banantzeko erabiltzen da. Normalean ez da ***and*** juntagailuaren aurrean idazten.
  I've got maths, English and science today.
- Galdera-ikurra (?) galderen amaieran bakarrik kokatzen da.
  Do you like sport?
- Harridura-ikurra ere (!) esaldiaren amaieran idazten da, eta emozio edo sentimenduak adierazteko erabiltzen da eta baita zerbait nabarmentzeko ere.
  I love football!

HITZEN HURRENKERA: SUBJEKTUA - ADITZA
(Word order: Subject – Verb)

Esaldiko subjektua aditzaren aurrean kokatzen da.

David walks to school.
s v

David is riding a new bike.
s v

Baina galderetan subjektuaren aurrean jartzen da.

Where is my hairdryer?
v s

Does David walk to school?
aux s v

HITZEN HURRENKERA: ADJEKTIBOAK
(Word order: Adjectives)

Izenen aurrean jartzen dira normalean.

warm sweater
adj n

To be aditzaren ondoren.

The sweater is warm.
v adj

HITZEN HURRENKERA: ADBERBIOAK
(Word order: Adverbs)

Adberdio indartuak eta moduzko adberbioak aditzaren atzean doaz.

Anna is sitting very quietly.
adverb of degree adverb of manner

SEKUENTZIA-LOKAILUAK
(Connectors of sequence)

Gertakari-segida kontatu nahi dugunean, gertakari horiek zein hurrenkeratan gertatu ziren adierazteko, hitz hauek erabiltzen ditugu:

- ***first*** (lehenik, lehenik eta behin)
- ***then*** (gero, ondoren)
- ***next*** (jarraian)
- ***after that*** (gero, [horren] ondotik)
- ***finally*** (azkenik)

First lokailuak lehenengo gertatu zena adierazten du, eta ***finally*** lokailuak, berriz, azkena gertatua.

*My grandfather came to England sixty years ago. **First**, he got a job in a restaurant. **Next**, he went to university and he studied science. **Then**, he became a chemist and he opened a chemist's in the centre of town. **After that**, he met my grandmother and they got married. He worked for many years, but **finally**, he sold his shop and they went to live near the sea.*

JUNTAGAILUAK
(Linking words)

Bi ideia edo gehiago lotzen dituzten hitzak dira.

- ***and*** (eta) juntagailuak antzeko bi perpaus edo ideia lotzen ditu.
  *I sailed to Greece **and** I flew to Australia last year.*
- ***or*** (edo) juntagailuak bi ideia desberdin lotzen ditu.
  *We walk to school **or** we go on a bus.*
- ***but*** (baina) juntagailuak bi ideia kontrastatzen ditu.
  *David likes travelling **but** he doesn't like flying.*
- ***because*** (-[e]lako, zeren...) juntagailuak zerbaiten arrazoia edo zergatia ematen du.
  *Janice doesn't go on a motorboat **because** she doesn't like water.*

Language Builder

Unit 1 page 7

Write the Dialogue

3 **Jane is at an audition for the TV programme *Britain's Got Talent*. Write the dialogue between Jane and Simon (the judge).**

1. Janek gitarra jotzen badakien galdetu du Simonek.
   Simon: .....
2. Baietz erantzun du Janek.
   Jane: .....
3. Zenbatetan jotzen duen Janek gitarra galdetu du Simonek.
   Simon: .....
4. Janek erantzun du normalean astean hirutan jotzen duela.
   Jane: .....
5. Janek normalean noiz jotzen duen galdetu du Simonek.
   Simon: .....
6. Janek erantzun du normalean arratsaldeetan jotzen duela.
   Jane: .....

Unit 2 page 9

Write the Dialogue

3 **Benny and Elaine are talking on the phone. Write the dialogue between them.**

1. Non dagoen galdetu dio Bennyk Elaineri.
   Benny: .....
2. Elainek erantzun dio Londresko azokan dagoela.
   Elaine: .....
3. Norekin dagoen galdetu dio Bennyk.
   Benny: .....
4. Elainek erantzun dio ahizpa Dorarekin dagoela.
   Elaine: .....
5. Zertan ari diren galdetu dio Bennyk.
   Benny: .....
6. Elainek erantzun dio arropa erosten ari direla.
   Elaine: .....

Unit 3 page 11

Write the Dialogue

3 **Cathy is asking Mark about his grandmother. Write the dialogue between them.**

1. Cathyk Marki galdetu dio non jaio zen haren amona.
   Cathy: .....
2. Australian jaio zela erantzun du Markek.
   Mark: .....
3. Noiz ezkondu zen haren amona galdetu dio Cathyk.
   Cathy: .....
4. Markek erantzun du 1961ean ezkondu zela.
   Mark: .....
5. Zein zen Marken amonaren lanbidea galdetu dio Cathyk.
   Cathy: .....
6. Markek erantzun du idazlea zela.
   Mark: .....

Unit 4 page 13

Write the Dialogue

3 **Dave meets his friend Joe at the shopping centre. Write the dialogue between them.**

1. Davek Joeri galdetu dio norekin ari zen hizketan.
   Dave: .....
2. Joek erantzun du neska polit batekin ari zela hizketan.
   Joe: .....
3. Neska nora zihoan galdetu du Davek.
   Dave: .....
4. Lanera zihoala erantzun du Joek.
   Joe: .....
5. Neska zergatik ari zen barrez galdetu du Davek.
   Dave: .....
6. Joek erantzun du istorio dibertigarri bat kontatzen ari zela bera (Joe).
   Joe: .....

Unit 5 page 15

Write the Dialogue

3 **Lucy and Jay are talking about the year 3000. Write the dialogue between them.**

1. Munduan bakerik izango ote den galdetu dio Lucyk Jayri.
   Lucy: .....
2. Ezetz erantzun du Jayk.
   Jay: .....
3. Lucyk esan du ziur dagoela robotek prestatuko dituztela gure jatorduak.
   Lucy: .....
4. Jayk esan du ez dagoela ziur. Robotek agian ontziak garbituko dituztela esan du.
   Jay: .....
5. Elefanteak desagertu egingo ote diren galdetu dio Lucyk Jayri.
   Lucy: .....
6. Baietz erantzun du Jayk.
   Jay: .....
7. Beharbada, jendea oporretan ilargira joango dela esan du Lucyk.
   Lucy: .....
8. Jayk esan du bere ustez jendea ilargian biziko dela.
   Jay: .....

Unit 6 page 17

Write the Dialogue

3 **Rob and Phil are discussing where to go. Write the dialogue between them.**

1. Zein leku bisitatu nahi duen galdetu dio Robek Phili.
   Rob: .....
2. Philek erantzun du hondartza bisitatu nahi duela. Ozeanoan igeri egitea ere ikaragarri gustatzen zaiola esan du.
   Phil: .....
3. Atsegina dirudiela esan du Robek. Baina hondartzan ibiltzea ez zaiola gustatzen.
   Rob: .....
4. Philek dio basoa leku polita izan daitekeela bisitatzeko.
   Phil: .....
5. Rob ados dago eta esan du han benetan lasai egoten dela.
   Rob: .....
6. Basoko zuhaitzei eta loreei begiratzen gozatu egiten duela esan du Philek.
   Phil: .....

Unit 7 page 19

Write the Dialogue

3 **Jim and Claire are talking about dangerous activities. Write the dialogue between them.**

1. Neska interesgarri bati buruz irakurri zuela esan du Clairek. Everest mendia igo zuela. Bere dibertitzeko ideia ez dela hori ere esan du.
   Claire: .....
2. Hori egitea asko gustatuko litzaiokeela esan du Jimek. Guztiz zirraragarria dirudiela ere esan du.
   Jim: .....
3. Clairek esan du bere lagunek marrazoekin igeri egin zutela joan zen urtean.
   Claire: .....
4. Jimek esan du ez duela sinesten jendeak horrelakorik egin duenik! Jendea erotuta ote dagoen galdetu du Jimek.
   Jim: .....
5. Paraxutarekin hegazkin batetik salto egitea gustatuko ote litzaiokeen galdetu dio Clairek Jimi.
   Claire: .....
6. Jimek esan du, bere iritziz, beldurgarriegia dela. Oihanean mendi-ibilaldiak egitea gustatuko litzaiokeela adierazi du.
   Jim: .....

Unit 8 page 21

Write the Dialogue

3 **Tom and Ann are talking about music. Write the dialogue between them.**

1. Hip-hop kanta hau gustatzen zaion galdetu dio Tomek Anni.
   Tom: .....
2. Baietz erantzun du Annek. Bere ustez, kanta bikaina dela.
   Ann: .....
3. Tomek dio mundu guztiari gustatzen zaiola talde hori, baina berak ezin duela hip-hop musika jasan.
   Tom: .....
4. Zer musika mota gustatzen zaion galdetu dio Annek Tomi.
   Ann: .....
5. Jazza eta reggaea gustatzen zaizkiola erantzun du Tomek.
   Tom: .....
6. Annek dio berari ez zaiola jazza asko gustatzen, baina reggae musika oso gustuko duela.
   Ann: .....
7. Tomek dio reggae musika dela musika motarik ezagunena.
   Tom: .....

Unit 9 page 23

Write the Dialogue

3 **Dave is asking Jane about something that happened to her. Write the dialogue between them.**

1. Nahigabetua dirudiela esan dio Davek Janeri. Zer gertatzen zaion galdetu dio.
   Dave: .....
2. Zarata arraro bat entzun duela esan du Janek.
   Jane: .....
3. Non zegoen galdetu dio Davek.
   Dave: .....
4. Basoan zegoela erantzun du Janek.
   Jane: .....
5. Nola sentitu zen galdetu dio Davek Janeri.
   Dave: .....
6. Janek erantzun dio beldurtuta zegoela.
   Jane: .....

Check Your Progress

Translation Exercises

Unit 1

1. Astelehenetan, ez dut kalkulagailurik eramaten eskolara.

2. Sarak zientzia ikasten du astearte goizetan.

3. Nora joaten zara dantza egitera, normalean?

4. Zein maiztasunekin jokatzen duzu boleibolean?

5. Noiz bidaltzen dituzte testu-mezuak zure gurasoek?

Unit 2

1. Maiz joaten naiz bolatokira nire lagunekin.

2. Nick sarri joaten da izotz-pistara patinatzera.

3. Jim sarrerak erosteko ilaran zain dago.

4. Eve eta Liz denbora pasa daude euren lagunekin.

5. Zergatik ari zara bazkaria eskatzen orain?

Unit 3

1. Lisaren iloba Eskozian jaio zen.

2. Sophierekin maitemindu nintzen joan zen udan.

3. Ez zen janari onik egon Rinaren festan.

4. Zenbat urte zenituen irakasle egin zinenean?

5. Brad Pritt eta Jennifer Aniston 2000. urtean ezkondu ziren.

Unit 4

1. Deitu gintuztenean ilaran zain geunden.

2. Taxi batean bidaiatu genuen, euria ari baitzuen.

3. Hamarretan puntuan, bidaia-gida bat irakurtzen ari nintzen.

4. Janaria erosten ari nintzen, nire laguna ikusi nuenean.

5. Nire txartela bilatzen ari nintzen, trena iritsi zenean.

Unit 5

1. Bihar ekaitza izango da.

2. Gaur futbolean jokatuko dugu parkean, euririk egiten ez badu.

3. Usain Boltek marka berria hautsiko du uda honetan.

4. Nire taldeak partida galtzen badu, oso triste egongo gara.

5. Helmugaren ondoan egongo naiz, lasterketa ikusteko.

Unit 6

1. Telefono mugikor hau dendako telefonorik garestiena da.

2. Kaxa hau kaxa hori baino astunagoa da.

3. Margolan hau da galeria guztiko ezohikoena.

4. Hotel hau hotel hori baino merkeagoa da.

5. Hondartza honek parkeak baino lasaiagoa dirudi.

Unit 7

1. Zientzialari batzuek suge berri bat aurkitu dute oraintsu.

.....

2. Inoiz igeri egin duzu marrazoekin?

.....

3. Oraindik ez naiz borondatezkoa izan zooan.

.....

4. Noiztik hezten dituzu elefanteak?

.....

5. Ezin dut sinetsi marrazo bat ukitu duzunik.

.....

Unit 8

1. Bateria asko daude denda honetan.

.....

2. Beti erabiltzen dugu aire egokitua udan.

.....

3. Ez dago zarata handirik gure eskolan.

.....

4. Ile-lehorgailu hau ez da nirea. Harena da.

.....

5. Ezin dut jasan musika klasikoa. Oso aspergarria da.

.....

Unit 9

1. Ez dituzu oinetakoak mahai gainean jarri behar.

.....

2. Ez zenituzke parkeko loreak jaso behar.

.....

3. Erratza pasatzen baduzu, garbi egongo da etxea.

.....

4. Nahigabetua dirudizu. Zer gertatzen da?

.....

5. Nire ahizpa erabat beldurtu zen zure txakurra ikusi zuenean.

.....